

BALEIKE



IRAZIO DUINA DENONTZAT
LACIÓN DIGNA PARA TOD@S

PENTSIÖAK

BIZITZAK DUINA
BEHAR DUELAKO

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

499€

Indukzioa

5 urteko garantia opari

AEG
IKB63341FB

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

499€

Baporea

Pirolitikoa

AEG
BPS351120M

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

329€

Indukzioa

ZANUSSI
ZM6233IOK

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

279€

WHIRLPOOL
AKP785IX

Abenduaren
3tik 21ra
**MUNTAIA
DOAIN**

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

209€

Bitrozeramika

ZANUSSI
ZEV633IBBA

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

369€

Labea + Bitrozeramika

BEKO
BSE22121X



TIEN 21

www.endañoetazumaia.com



BALEIKE 293

2019-ABENDUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
MARIA MAYA MANTEROLA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 4 | Hitz tantak Juan Luis Romatet
<i>Marije Antia eta Lore Esnal</i> | 26 | Bazkide kluba |
| 6 | Izpiak eta hizkiak Ibai Artetxe
Fernandez
<i>Iparreko argiak</i> | 28 | Plazan bazan |
| 8 | Hainbat aburu Josu Waliño
<i>Interneteko askatasuna mugatzeko dekretua</i> | 31 | Osasuna Rosa Azkue
<i>Artrosia</i> |
| 9 | Errematea Iosu Alberdi
<i>Egia ostea</i> | 33 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Jostailua aukeratzen</i> |
| 11 | Elkarrizketa Juan Luis Romatet
<i>Agustin Zubimendi: Gabon Korua zer den jakiteko, koruan atera behar duzu</i> | 34 | Zientzia eta ingurumena
Gonzalo Torre
<i>Edonor ikertzaile? Eta zergatik ez?</i> |
| 17 | Erreportajea Maria Maya Manterola
<i>Bizitza duinak aldarri</i> | 38 | Orduan bai Imanol Azkue
<i>Gure harrobiak</i> |
| 22 | Erretratua Julen Aperribai
<i>Irene Irureta eta Karmele Gorroño, ilustratzaileak</i> | 42 | Kultura Onintza Lete Arrieta
<i>Rock onenari gorazarre</i> |
| | | 43 | Agenda |
| | | 44 | Literatura Asier Arakistain
<i>Biografia komiki bidez</i> |
| | | 45 | Nire txanda Arantxa Eizagirre
<i>Liburutegitik</i> |
| | | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Arrotzaren poz txikiak</i> |

BALEIKE

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu z/g. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
jlromatet@ukt.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta

Julen Aperribai
Imanol Azkue

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Hizkuntza arduraduna

Imanol Azkue Ibarbia

Publizitatea

Felix Aizpurua
faizpurua@ukt.eus
Administrazio arduraduna
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udalak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

k
kutxabank

Marije Antia eta Lore Esnal

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Gabonetako Abesti Lehiaketa antolatuko du Erkibe kultur elkarteak aurten ere, azken lau hamarkadetan egin duen bezala. Gabon gau arratsaldean arituko dira umeak kantuan Batzoki aurrean, eta lehiaketa antolatzen eta haurren lana epaitzen arituko dira Marije Antia eta Lore Esnal, azken urteotan egin duten bezala.

Noiz eta nola sortu zen lehiaketa hau?

Marije: 1977an legeztatu zuten EAJ, urte bat geroago berreskuratu zuen Batzokia, eta harrezkero urtero antolatu du, Gerra aurretik, Errepublikara garaietan egiten zen bezala.

Zenbat urte daramazue lehiaketa antolatzen?

Lore: Nik baditut argazki batzuk Jeronimo Egañarekin agertzen naizena. 1995ekoa edo izango da. Bi ataletan banatzen da lehiaketa: abestiak, batetik, eta jantziak eta jaiotza, bestetik. Lehen pare bat lagun arduratzen zen abestiez, eta beste pare bat jantziez.

M: Orain jende gutxiago dago, eta biok arduratzen gara guztiaz.

L: Guk hartu dugu ardura, pena ematen digulako uztea. Urtero esaten dugu azkena izango dela, eta jarraitu egiten dugu. Jendea apuntatzen den heinean, segiko dugu.

M: Garrantzitsua iruditzen zaigu gaurko hurrek lehengo kantuen ikastea. Nik kantu zaharragoak jarriko nituzke, baina gaurko umeek ez dute ez denborarik, ez gogorik.

L: Hurrek parte hartzea nahi baduzu, ezin dituzu kantu oso zaharrak edo zailegiak jarri. Herriko abestiak ere sartu ditugu, eta hor ibiltzen gara erdibidetik.

Txikitan lehiaketan parte hartuko zenuten abeslari bezala.

M: Bai! Gu beti izan gara kantuzaleak. Beti kantuan, beti. Baita lehiaketa honetan ere.

L: Gabon Koruko abestiak izaten ziren asko. Oso tradizionalak. Esaten dute ez dela erlijioa aipatu behar kantuetan. Gu ez gara disimulatzen ibiliko,

hor ez dugu filtrorik jartzen. Saiatzen gara, gainera, herrian entzuten diren ohiko kantuen aukeratzen.

Zer da zailagoa: kantuan ateratzea edo epaile izatea?

M: Epaile bezala, saiatzen gara ahalik eta justuenak izaten, baina zaila da.

L: Ikusten badugu talde batean prestatuta daudela, abarkekin, lokarriak ondo lotuta, ilea ondo orraztuta, painelua... Hori guztia baloratzen dugu. Baina etortzen badira hala moduz, mendiko botekin, forru polarrarekin... Ondo, baina saiatu zaitetz pixka bat! Eta derrigorrezko kanta ere prestatu dezatela. Hori, behintzat!

M: Gero jaiotzak daude. Oso politikak izaten dira. Baina igartzen da gurasoek eskua sartu dutela. Umeek ezin dituzte jaiotza horiek egin.

L: Jaiotza sinpleagoak baloratzen ditugu, hurrek beraiek egindakoak.

M: Oso zaila da. Batzuetan, jantzi aldetik primeran daude, baina jaiotza nabari da ez dutela beraiek egin. Eta alderantziz. Gero, talde batzuk saiitzen dira bi ahotsetara abesten, eta hori ere baloratzen dugu.

L: Saiatzen gara ahalik eta gehienei zerbait ematen?

Zer ematen die lehiaketa honek Zumaiako Gabonei?

M: Girotu egiten dute Gabon gau arratsaldea. Arratsalde parte horretan ez dabil oraindik jende asko, eta Beheko plaza girotzen du.

Noiz arte jarraitzeko asmoa duzue?

L: Behin honaino helduta...

M: Umeek izena ematen jarraitzen duten bitartean. Apuntatzeari uzten badiote, guk horren aurrean ezin dugu ezer egin.

Zer dira Gabonak zuentzat? Gustukoak al dituzue?

M: Niri lehen gustatzen zitzaizkidan, baina orain ez.

L: Nik gozatzen ditut. Lan asko da, lotua da. Batzuetan nik ere esan izan dut, "pasatuta baleude, hobeto!". Baina gero heltzen direnean, arratsaldeko giro horrekin bi ardo hartu, nahiz eta oso topikoa izan, nik gozatu egiten dut. ■



Iparreko argiak

ARGAZKIA ETA TESTUA: IBAI ARTETXE
FERNANDEZ

Gure inguruan argazkiak ateratzeko gune zoragarriak egon arren, denok erakartzen gaituzte Iparreko argiak deritzen fenomeno atmosferikoek.

Eguzkiko ekaitzen isurketak gure planetaren bi poloetara iristean sortzen diren fenomeno ikusgarriak.

Argazki hau Laponia suediarrean ateratakoa da, zirkulu artikoa baino 100 kilometro iparralderago, Alesjaure izeneko aterpetxe batean. ■■■

Datu teknikoak: *Nikon DF kamera; Tokina 11-16 objektiboa; f/2.8; 30 segundo; ISO-100.*

Web orria: *guardiavarega.com*
Instagram: *eorirn*







Interneteko askatasuna mugatzeko

Interneten alarma piztu du Espainiako Gobernuak Telekomunikazioak kontrolatzeko argitaratu berri duen lege dekretuak. Horren bidez, salbuespen egoeran komunikazio digitalak mugatu eta kontrolatu ahal izango ditu gobernuak, epaileen baimen beharrik gabe, Kataluniako egoera aitzakiatzat hartuta.

Onartu berri duten arau horren helburua, Pedro Sanchez presidentearen beraren arabera, Kataluniako Errepublikak Digitala sailhestea da. “Ez da egongo ez offline ez online independentziarik”, iragarri zuen dekretua onartu baino ordu batzuk lehenago. Arau horrek, ordea, Kataluniaz gain administrazio publiko guztiei eragiten die, baita publiko ez diren komunikazio elektronikoen eremuan ere.

Dekretua sarrera luze batean eta bost kapitulutan banatuta dago. Sarreraren helburua ondorengo kapitulutan zehazten diren esku hartzeak justifikatzea da, behin eta berriz Auzitegi Konstituzionalari eta Kataluniako egoerari erreferentzia eginez. Ondoren, kapitulu bakoitzean hainbat puntu lantzen dira: lehenengoan, identifikazio sistemen kontrola ezartzen da, salbuespen-egoeretan NAN agiria bakarrik onartuko dela zehaztuz; bigarren eta hirugarren kapituluak datuen kontrolera daude zuzenduta, administrazio publikoen datuak eta horientzat lan egiten duten enpresen zerbitzariak Europan eta kasu zehatz batzuetan Espainiako lurraldean izatera behartuz eta Blockchain teknologian oinarritutako

sistemak debekatuz; laugarren kapituluan “Sareko edozein mailatan” komunikazio digitalen kontrola hartzeko aukera zehazten da; azkenik, bosgarren kapituluan segurtasunaren kontrola Centro Criptográfico Nacional (CCN) delakoaren esku uzten da kasu berezietarako, gainerako administrazioek dituzten zentroen gainetik.

Laugarren kapituluan “Sareko edozein mailatan” komunikazio digitalen kontrola hartzeko aukera adierazten da. Komunikabideek webguneen itxierarekin lotu dute puntu hau, baina kapitulu hau askoz harago doa. Internetek oinarrian duen DNS sistemak duen hierarkiari erreparatuta, mailatan antolatzen dela ikus daiteke: webguneak bigarren mailan kokatzen dira, eta

HAUXE BAI JENEROA!



o dekretua

domeinuak lehen mailan. Hau da, www.sarean.eus domeinu izena hartzen badugu, honela banatzen da teknikoki: “eus” lehen maila da, “sarean” bigarren maila eta “www” azpidomeinua edo hirugarren maila.

Dekretuak sareko edozein mailatan komunikazioen kontrola hartzeari buruz hitz egiten duenean uler daiteke webguneak ixteaz harago, epaileen agindurik gabe domeinu osoaren kontrola hartzeko aukera gobernuaren esku uzten duela.

Hori hala bada, horrek dekretuaren larritasuna areagotzen du. ICANN da Interneten kontrolaz arduratzen den erakundea, eta .EUS bezala beste domeinu-erregistro guztiek harekin hitzartutako kontratuak

zehazten du epaileek ezarritako domeinu izenen itxiera errekerimenduei erantzuteko beharra. ICANNek kontrol neurri zehatzak ezarriak ditu edozein kasutan domeinuen funtzionamendua bermatzeko, eta horretarako segurtasun prozedura zorrotzak jarraitzen dira TLD guztietan, baita .EUSen ere. Alegia, dekretuaren aplikazioak ez luke inongo kasutan ekarriko .EUS erabiltzen duten webguneek funtzionatzeari utziko lioketenik.

Dekretu hau hauteskunde garaia begira sortutako mugimendua dela dirudi. Ea datozen hilabeteetan legebiltzar edo tribunalek gure askatasuna mugatzen duen dekretu hau bertan behera uztea. Hala bedi, Interneteko askatasunaren mesedetan. ■■■

ERREMATEA



IOSU ALBERDI

Egia otea

Norberaren emozioek edo usteek gertakari objektiboek baino pisu handiagoa duten egoera” definitzeko kontzeptu gisa aurkeztzen du hiztegiak egia otea. Matthew D’Ancona kazetari ingelesak, *Post Truth. The New War on Truth and How to Fight Back* liburuan, 2016an kokatzen du kontzeptuak bizitza politikoaren erdigunera eginiko saltoaren hasiera. Donald Trumpen eta *Brexit*aren aldeko kanpainetan, hain zuzen. Populismoaren gorakadarekin, sentimenduek arrazonomenduari diskurtsoaren zentralitatea kentzean.

Gurera ekarrita, eskuin muturreko Vox alderdiarekin lotzen da kontzeptu hau –gurera diot, Zumaian 56 boto eskuratu zituztelako azken hauteskundeetan–. Immigrazioa eta indarkeria matxista –eurek ez lukete termino hori erabiliko– lotzen dituzte ahal duten guztietan. Datu faltsuak erabili izan dituzte horretarako, nahita. Badakite alde zurretik lotura hori egin dutenek ez dutela zalantzan jarriko esanikoa, gizartearen gehiengoak aurkakoa esan arren. Izan ere, urte luzetan immigrazioa gaizkiarekin lotu izanaren fruituak jasotzen ari da alderdia. Xenofobia ikur, gorantz doa. Eta krisi ekonomikoa omen dator hura hauspotzeko. ■■■



PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



a3 diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



AITA-MARI
Jatetxea

679 10 31 67
aitamarijatekx@gmail.com
Juan de Zigarán 1 beheko • 20750 Zumaia



AIZPURUA
LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarteak
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00



ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61



Amata
taberna

tel.: 943-54 31 64
amataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)




Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31



OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69



Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bos.com



Azkue

www.ricardoazkue.com
Txomin Agirre 4, beheko tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



bai bidea

Taberna · Jatetxea
Bar · Restaurante

943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)



Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 63 06
bakun@euskalnet.net



Basodi
albaitaritzak

filbaitaria
Itali Garmendia

Basodi, 7, beheko - tel. 943-14 33 10
veterinaria@basodivivinet.com
www.basodivivinet.com

Golez: 11-13 / Arratsalduak: 16-19:30 / Astelehen goizean eta tartaratuaren bitartean
Larrialdiak: 605 72 87 07 Etaz ebeko zerbitzuak



BEHEKO PLAZA
taberna-jatetxea

- Egunko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943-86 17 00

"Gabon Korua zer den jakiteko, koruan atera behar duzu"

AGUSTIN ZUBIMENDI GABON KORUKO ZUZENDARIA

Parrokia aurretik abiatu, eta herri osoa zeharkatuko du kantuan Gabon Koruak abenduaren 24an, Gabon Gauaren arratsaldean. Agustín Zubimendik zuzenduko duen azken kantu kalejira izango da, 36 urteren ondoren ardura hori utzi egingo duelako.

Testua: **Juan Luis Romatet.**

Gabon Koruari lotutako bizitza da Agustín Zubimendirena. Korua sortu zuten urte berean jaio zen, 1944an, alegia. Abeslari sartu zen seminariotik irten berri zela, eta 1984an korua zuzentzeko ardura man zioten. Gabon Koruaren 75. kantu kalejira izango da aurtengoa.

Bukaeratik hasiko gara. Gabon Korua utziko duzu.

Zergatik?

75 urte ditut, eta uste dut badela uzteko garaia. Azken urte hauetan, noizean behin, urteren batean, nekatuta aurkitu naiz eta konturatu naiz zenbat urte ditudan. Beste batzuetan oso ondo aurkitu naiz, baina uste dut badela ordua lekukoa beste norbaiti uzteko..., inork nahi badu, behintzat.

Abesbatza honek "kontzertu" bakarria ematen du urtean, baina atzetik lan handia izango du.

Atera kontuak: normalean, dagoeneko, entseatzen hasita egon beharko genuke [azaroaren 13an egin zen elkarrizketa]. Ikusita Gabon Koruak 75 urte betetzen dituela, dei egin nahi izan diet urte hauetan guztietan abestu duten guztiei. AbDenok dakizkigun kantuak abestuko ditugu; berriak

ikasten egon beharrean, lehengoak izango dira, eta horrela aukera emango diogu etorri nahi duen guztiari. Abenduaren 9an hasiko ditugu entseguak. Bi aukera emango ditugu, gainera, arratsalde guztian abesteko, edo Erribera kalea bakarrik egiteko. Hori abeslari bakoitzak erabakiko du.

Azaroan hasten zenituzten entseguak. Baina lanean noiz hasten zinen?

Burua lanean lehendik, bai. Zer abesti berri aukeratu, zer inguratu... Aukera handia dago, baina jakin behar da zein izan daitekeen egokiena kontuan izanda zer jende etortzen den abestera. Aurretik hasten naiz pentsatzen, baina lanean buru-belarri entsegu garaian hasten naiz.

Azken urteotan nekatuta sentitzen zinela esan duzu. Noiz hartu duzu koruaren zuzendaritza uzteko erabakia?

Uzteko urte egokia dela uste dut. Honaino heldu nahi nuen, ahal izanez gero. Galdetu izan didatenean zuzentzeko ea zer behar den, beti gauza bera erantzuten nuen: osasuna. Osasuna aurrena, eta ez orain, urte asko ditudanean, lehen ere bai. Zuzentzea ez da kantua eta musika bakarrik; buruak lan asko egiten du. Eta



Agustín Zubimendik azkeneko aldiz zuzenduko du Gabon Korua. ARNAITZ RUBIO APREA

dedikazioa eskatzen du. Bete-bete eginda bizi zara. Kantatzeko eguna ez da ezer ere, hori da errazena, etorri eta kantatu. Kantatzea munduko gauzarik errazena da. Entseguak dira zailak. Jo eta buelta, errepika eta atzera, benga, haserretu... Hori da zaila.

San Pedro abesbatza zuzentzea utzi nuen garaian lanean erretiroa hartu nuen, eta pentsatu nuen beste gauzak ere utzi beharko nituela. Baina ikusita Gabon Korua urtean behin izaten dela, eta lana hilabetekoa, segi egin nuen. Baina heldu da momentua uztekoa, eta data hau egokia iruditu zait: Gabon Koruaren 75. urtea, nik 75 urte bete ditudanean.

Zuzendari izateari utziko diozu, baina abesten jarraituko al duzu?

Utzi-utzi nahiko nuke. Nik abesten jarraituko banu, zuzendariarentzat karga bat izango litzateke ni han ikustea. Nik neuk ere agian sufritu egingo nuke. Askotan onena bidetik kentzea izaten da.

Zer da Gabon Korua zuretzat?

Bizi ez duenak ezin du esplikat. Anekdotak bat kontatuko dizut. Behin, ezin izan nuen abestu familiarekin Oriora joan behar nuelako. Beti

Zumaian ospatu ditugu Gabonak, baina urte hartan Oriora joan ginen. Han ez dago Gabon Korurik edo halakorik, eta 18:30ean kotxea hartu eta Zumaiara etorri nintzen. Ezin nuen jasan! Behin, soldadutzatik bueltan, ezin izan nuen entseguetara joan eta orduan zuzendari zen Jeronimori [Egaña] baimena eskatu nion abesteko. Ezetz esan balit zizko eginda geratuko nintzen. Hain herrikoa da, parte hartzen duenari pozoia sartzen dio. Koruak 50 urte bete zituenean, Miren Eizagirre Suitzan zegoen, lanean. Baimena eskatu zidan azken astean entseatu eta abesteko. Suitzatik etorri zen horretarako! Antzeko kasu asko daude. Lanean gaueko txanda egiten aritu eta entseguetara etortzeko lanean ordubete geroago sartzeko baimena eskatu duen jendea ere badago.

Gabon Korua beste inon ez dago. Zumaiakoa bezalakoa ez, behintzat. Beste herrietan jendea kalera ateratzen da abestera, baina ez hemengo moduan. Hemen bost orduan izaten gara kantuan, bost ordu herri osoan zehar. Gero, talde txiki bat ere bada auzoak egiteko: Narrondo, Txikierdi, Egurko... Gabon Koruak, musika aldetik, maila bat du ezin dena galdu. Zumaiako Gabon

Korua entzutea gauza handia da. Eta horren meritua denona da, orain 75 urte Kepa Urangarekin hasi zutenetik orain arterakoena.

Abesbatza honek harrera ona du herrian.

Jendea zain egoten da. Behin herrigunera heltzen garenean, Kantauri plazara heltzen garenean eta handik Parolaldera, hor jendea mugitzen hasten da. Behin 19:30etik aurrera, hori jada izaten da... Izan dira urteak kalean kantatzen jarri eta jendea bultzaka izan duguna; jendea ez zen kabitzen kalean. Koruak 50 urte bete zituenean 197 abeslari aterata ziren kantatzera; lehengo jende asko etorri zen. Badago argazki bat parrokiaren aurrean aterata; jarri ginen eskaileteran eta ia San Pedro bera tapatu genuen! Beti esaten dut: Gabon Korua zer den jakiteko, koruan aterata behar duzu. Baditu ikusten ez diren une ez hain samurrak ere: entseguak, haserreak... Baina behin ateratzen zarenean, poza sentitzen duzu. Hori hainbat urtetan ureztatutako lorea da.

Nahiz eta Gabonekin lotutako korua den, partaideen artean pentsaera guztietakoak egongo dira, baita ateak ere.

Zalantzarik gabe! Hasi zutenek akaso errazago izango zuten, baina nire aldetik ekarri ditudan kantak beti Gabonekin lotutakoak izan dira. Ez bada gabon girokoa, nik ez dut eramango. Esango dute pixka bat karka naizela, beno, nahi dutena. Esana libre.

Koruak 50 urte bete zituenean, ia 200 abeslari elkartu ziren. Aurten zer gertatuko dela uste duzu?

Kopuru horretara heltzea zaila izango da, baina pentsatzen dut jendea etorriko dela. Entseatzen hasten garenean ikusiko dugu. Lehen egunetik tankera hartzen diot zenbat jende etorriko den. Pentsatzen dut, ilusioa badut, behintzat, ehundik gora izango garela.

Oso kritikoa zara. Seguruenez zeure buruarekiko ere bai. Zuzendariaren kutxa gainetik entzulearen lekura pasatzen zarenean, gozatuko al duzu Koruarekin?

Oso kritikoa naiz, eta beti izan naiz, beti. Baina badakit besteen lana apreziatzen ere. Badakit zenbat kostatzen den, eta zerbait justifikatu behar bada, erraz justifikatzen dut. Badakit zenbat izerdi botatzen den.

Trantsizio une horretan laguntzeko prest egongo al zara?

Bai, bai. Lagatzen dudala ez diot inori esan, beno, gutxi batzuei bai. Zuzentzeko aukera duten koruko kideek badakite. Baina inor ez da agertu zuzendari postua hartzeko gogoarekin. Agian nik uzteko zain egongo dira! Ez da erraza izaten.



Zubimendi, Gabon Korua zuzentzen. JUAN LUIS ROMATET

Agian uzten dudanean aterako dira bizpahiru lagun.

Oso zorrotza zara, onar dezagun hori, eta jende batek utzi du Korua zurekin haserretuta.

Gabon Koruan hiru bakarrik joan dira, hiru ahizpa. Ez du horrek baliorik. Bakarra joan balitz, agian bai, baina hirurak joanda... Zorrotza naiz, bai, baina Gabon Koruan ez hainbestekoa. Beste koruan askoz ere zorrotzagoa naiz. Gauza da akuilua noizean behin aterata behar dela. Beheko Plaza abesbatza zuzentzen hasi nintzenean ordurako ezagutzen nuen korua; noiz edo noiz abestu nuen beraiekin. Baina hasi nintzenean zuzentzen lehen egunetik gogorra izan nintzen. Pentsatzen nuen gerra hura nik irabazi behar nuela. Zegoen jendearekin, gogor egin izan ez banu, urtebete ere ez zuen iraungo. Entseguetan bat barrez, besteak berrikerian, horrek mala letxe handian jartzen ninduen.

Gogoan dut zure osaba Pedroren esaldi bat; kanpora joaten ginenean abestera, eta galdetzen zutenean ea nola entseatzen genuen, hark zioen: "Gure entseguetan ez du jainkoak ere hitz egiten,

ezta jainkoak ere; beno, noizean behin San Agustinek” [barrez].

1980ko hamarkadan hasi zinen zuzendari lanetan. Aurretik abeslaria izan zinen.

17-18 urterekin sartu nintzen abeslari, Seminariotik irten berri, eta 1984an zuzendu nuen Gabon Korua lehen aldiz. Gabon Koruko jendea ezagutzen nuen, eta haietako batek esanda, ez dut gogoan nork, sartu nintzen, musika ere banekiela eta.

1984tik zuzendari. Urte asko dira.

Aurtengoa 36.a izango da. Niri ezer kontsultatu gabe utzi zidaten zuzentzeko ardura. Jeronimo zegoenean nik auzoak egiten nituen, koru txikiarekin. Egun batean, aurrez ezer esan gabe, parrokiara heldu ginenean esan zuen berak utzi egiten zuela eta ni izango nintzela hurrengo zuzendaria. Eta halaxe. Orduan Bazkalondo abesbatza zuzentzen nuen, eta handik pixka batera, San Pedro ere hartu nuen. Hasi eta berehala gauzak aldatzen hasi nintzen; gauza batzuk ez zitzaizkidan batere gustatzen.

Lehenbiziko urtean errepertorioa ez nuen aldatu, baina bigarregotik bai. 1988an Hogarrera ekarri nituen entseguak; lehen eskola txikian egiten ziren, parrokiaren ondoan, eta han sekulako hotza egiten zuen. Hemen, berriz, kalefazioa zegoen. Garai hartan umeen korua ere zuzentzen nuen, parrokiari; San Pedro Txiki urtebetez nik zuzendu nuen. Gero, Hogarrekoarekin hasi nintzen, eta ondoren San Pedrorekin. Garai batean, lau koru zuzentzen nituen. Eta orduan lan ere egiten nuen. Ez dakit nondik ateratzen nuen denbora!

Etxean zer esaten zuten?

Argazkia jartzen zuten mahaian seme-alabak gogoratzeko aita zein zen! [barrez] Garai hartan, behintzat, lehentasun batzuk nituen. Kuadrillako lagunek ziotela afaria zegoela ostegunean? Nik ezetz esaten nien, entsegua nuelako. Nire lagunak nire lagunak dira, lehengo harreman estu hura galdu egin dut, orain beste lagun batzuk ditut, baina haiek nire lagunak izaten jarraitzen dute.

Korua zuzentzeak beste era bateko eragina izan du, beraz, zure bizitzan.

Nik ez nuke esango eragin txarra izan duenik. Beti gertatzen da hori. Ezkontzen zarenean andrearen kuadrillarekin ere ateratzen zara. Ni koruek erakarri naute. Ez dut uste ezer galdu dudarik, eta zerbait galdu izan badut, gehiago irabazi dut. Zenbat jende ezagutu duzun, zenbat jende estimatzen zaituen... Askotan esaten da ‘inor ez da profeta bere herrian’. Hori ez da egia.

Batzuentzat ez zara izango, baina beste askorentzat bai. Ni ez naiz izan inoiz laudorioren zalea. Entzun bai, baina nik baldin badakit kontzertu ona ez dugula eman, konturatzen den lehena ni naiz.

Gabon Korua hartu eta gutxira hasi zinen gauzak aldatzen. Zuzendari batek beti utzi behar al du bere arrastoa?

Nahi ez badu ere uzten du. Bost zuzendari hartu eta orkestra batek bostetan desberdin joko du. Behin edo beste esan didate: “Zuk zuzentzen dituzun koruek denek berdin abesten dute”. Agian txarrerako esango zuten, baina nik onerako hartu dut. Zer da korua? Korua da nik jotzen dudana instrumentua. Hala da. Beste zuzendari batekin ez du berdin joko. Hobeto edo okerrago, baina berdin ez.

Gogoan al duzu zuzendari bezala egin zenuen lehen kantu kalejira?

Ez nuen bertigorik sentitu. Pentsa ezazu: aurrezki kutxa batean egiten nuen lan, eta beti izan naiz zuzendaria; ohituta nengoen agintzera. Korua zuzentzeak ez zidan presiorik eragin. Baina konturatu nintzen koruarekin eskean ateratzen zirenek ez zutela lana ondo egiten. Errieta egin nien: “Guk hilabete egin dugu entseatzen, zuek ere saia zaitezte”. Egiteko sistema aldatu egin zuten, eta urte batetik bestera bildutako dirua bikoiztu egin zen. Jendaurrean kantatzeak ez dit urduritasunik sortzen; askoz ere okerrago pasatzen dut ondoren. Behin kontzertua bukatu eta etxerakoan deskonpresio antzekoa pasa behar izaten dut. Gero [emanaldiko] bideoren bat ikusten badut, batzuetan negarrez amaitzen dut emozioagatik.

Abesbatzak dira zure bizitza...


Caja de Ahorros Provincialean lan egin nuenean koru bat sortu nuen, eta Melillan soldadutza egin nuenean beste bat...

Beheko Plaza abesbatzarekin jarraituko al duzu?

Bai, bai, Beheko Plazarekin bai.

Zer eskatuko diozu Gabon Koruko zuzendari berriari?

Eskatu ezer ere ez. Seguruenez Gabon Korua ezagutuko du hartzen duenak. Gauzak egin ditzala berak uste duen bezala, eta besteek egindakoari kasurik ez egitea. Bere zigilua jarri behar dio. Hau honela da, musika honela da, eta berak eman diezaiola bere interpretazioa. Nik ez diot inoiz esango gauzak nola egin behar dituen. Galdetzen badit esango diot, baina bestela ez. Presta dadila eta hortik aurrera lana, lana eta lana. Besterik ez dago. ■■■



LOOK
INDUS**RY**

Maite Elosua
Pelukexi

Ausartzen direnzentzat eta ez direnzentzat.
Zu zara nire bezeroa.

Erribera kalea 7, 2 atzealdea
638 59 50 38

Eguberri on!



Zumaiko Udala

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretegia · asador
José Blázquez

Patzila Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 23
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



EDU
ZUMAIKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57
www.eduoptika.com

RPS 18/16




EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Ekin
ERREKINDEA, L.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45



ERTZ INFORMATIKA


Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943-14 33 95



Galdona
burdindegia

Mendara marinel, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



Garoa

Carlos Cifredo - Antxoa Olaizola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77
matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com



Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70



ilarfi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20



INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriando optika

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako solnu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com




IRUITZ ILEAPAINDEGIA

San Telmo, 12
Tel.: 943-86 07 60



ORRAZTEGI
ZUMAI

943-86 20 83



Bizitza duinak aldarri

Bizitzaren kostuak goranzko joera nabarmena zuela, Espainiako Gobernuak pentsioak % 0,25 besterik igoko ez zituela iragarri zuen —legeak ezartzen duen gutxieneko kopurua, hain zuzen ere—. Pentsiodunen eta jubilatuen haserreak eztanda egin eta, dagoeneko, ia bi urte daramatzate pentsio duin eta publikoen aldeko borrokan.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Utzitakoak**.



2019ko urriaren 16an Madrilén egin zen manifestazio jendetsuan parte hartu zuten Zumaiaiko pentsiodun batzuek.

Mariano Rajoy Espainiako presidente ohiaren gobernuak hartutako neurri hori “adar jotzea” izan zela iruditu zitzaion orduan Iñaki Altzibar Zumaiaiko jubilatua eta pentsiodunen plataformako kideari. Uste du gerora mugimendu antolatua baten gisan gorpuztu zen horrek hasiera bitxia izan zuela. “Jendea min egin zion, eta antolatuta egon ez arren, kalera irteten zen pentsio publiko eta duinen alde borrokatzera”. Erantzun horrek “dinamika berezi bat” eman diola

iruditzen zaio Pello Enparan plataformako kideari. Hala eta guztiz ere, lehendik ere jubilatuen eta pentsiodunen talde batzuek bazeudela gogoratu du Enparanek, Nagusilan edo Duintasuna, kasu.

“Hasieran pentsatu baino hobea” izan da mugimendu horrek Zumaian izan duen bilakaera, Enparanek aipatu duenez. Harekin bat dator Bittor Bengoa ere: “Astelehenero elkartzen gara, baita eguraldi txarra dagoenean ere. Hori ez da ikusi herri askotan”. Batez beste, 90 edo 100 lagun elkartzen dira, baina 130 ere elkartu izan dira udan. Hileko lehenbiziko astelehenean, gainera, manifestazioa ere egiten dute herriko kaleetan. Iazko apirilean, EAJk eta PPK pentsioak KPI adina igotzea adostu ondoren, Altzibarrek gogoratu du jende batek asteleheneroko hitzordura joateari utzi ziola. Igoera txikia izateaz gain –pentsioek 2,83 euroko igoera izan zuten batez beste Hego Euskal Herriko pentsioetan–, pentsiodunek dituzten askotariko aldarrikapenen inguruan ohartarazi nahi izan dute.

Hain zuzen ere, bost puntuz osatutako mozioa aurkeztu zuen udaletxean Zumaiaiko jubilatuen eta pentsiodunen plataformak 2018ko uztailan. Ozta-ozta onartu zuen udalak eskakizuna. Bost puntu horien artean, 2010eko eta 2012ko lan erreformak ezabatzea eta 2011 eta 2013ko pentsioen inguruko lege batzuek kentzea aipatzen zituzten, baita iraunkortasun faktorea ere: “Bost urtetik behin azterketa bat egin ondoren ikusten badute adinaren piramidean gora doala, formula batzuek aplikatu eta pentsioak jaitsi nahi dituzte. Mehatxu bezala, hor dago”, azaldu du Enparanek.

Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua dira, pentsiodunen arabera, beren “miseriaren” erantzuleak. Espainiako Gobernua da nagusia, Enparanen arabera, hark kudeatzen duelako Gizarte Segurantzako kutxa. “Beraiek atera zituzten 65 mila milioi euro bankari laguntzeko. Horiei eskatu diegu gutxienez KPIa mantentzeko eta, horrez gain, Konstituzioak dioen bezala –eta ni ez naiz konstituzio zalea–, herritar guztiek izan behar dutela duin bizitzeko bermea. Hori aplikatu dezatela eskatzen diogu”.



Enparanek nabarmendu du 65 mila milioi horiek ordaintzeko Konstituzioa aldatu zutela, “ukitu ezin den Konstituzioa” horretarako ukituta.

“Herri mugimendu indartsurik ez zaie interesatzen”, dio Enparanek. Mugimendu horiek dira gobernuak presionatzen dituztenak, pentsiodunen plataformako kidearen arabera. Hil honen 12an Gasteizen izango dira. Aurrekontuak eztabaidatzen ari dira orain, eta parlamentuaren aurrean egingo dute mobilizazioa. “Beti da presioa, eta hori ez zaie interesatzen. Errazagoa da bulego batean lau pareten artean gauzak erabakitzea”, dio.

Gazteek lan munduan duten egoera prekarioaz ere aritu dira. Bengoaren arabera, urrun ikusten dute gazteek pentsiodunen afera. Azpikontratazioen gorakada izan da, Altzibarren arabera, lan munduan egoerak okerrera egiteko gakoetako bat. “Lanean hasi ginenean ez zegoen langabeziarik, eta lana topatzea ez zen problema”. Alderaezina da egoera, pentsiodunek diotenez: “Normalean lana aurkitzen genuen, eta gainera, soldatak nahiko duinak ziren”. Horrek, erretiro duina izatea dakar, Bengoaren hitzetan. “Borroka honen parte gara, uste dugulako hor egon behar dugula, borroka bultzatzen. Asko ez daude gure egoeran”.

Francoren garaitik “konbenioak eta laneko baldintzak hobetzen” ikusten joan dira. Pentsio onenak orain eta hemendik hamar urtera kobratuko ditu jendeak, haien arabera. Orain ordaintzen diren soldatekin ez da kutxa sortzen, eta, horregatik, presio handiagoa dago diru pribatuarekin. Egoera horretan, aipatu dute irtenbidea zergak direla.

Lanuztea, pentsio publikoen alde

Eskubide Sozialen Kartak lanuzte orokorra deitu du urtarrilaren 30erako, pentsio publikoen eta bizitza duinen alde. Espainiako Gobernuak erantzukizuna izan arren, Eusko Jaurlaritzari ere zuzendu zaizkio: “Eusko Jaurlaritza ez da libratzen: 1.080 eurora iristen ez den jendeari laguntza bat jarri diezaiekete, 1.080 euroko kopuru horretara heltzeko”.

Zumaiako Udalak laguntza hori bermatuko duela hitz eman die pentsiodunei. Egoera hobetzeko “emergentziazko erantzuna” da, hala ere, pentsiodunen arabera. Laguntza hori eskuratu ahal izateko, baldintza batzuk bete beharko dituzte.

Astelehenero mobilizazioak egiten ditu herriko pentsiodun talde batek: elkarretaratzeak eta, hileko lehen astelehenetan, manifestazioak.

“HASIERAN PENTSATU BAINO HOBEA” IZAN DA MUGIMENDU HORREK ZUMAIAN IZAN DUEN BILAKAERA

“LANEAN HASI GINENEAN EZ ZEGOEN LANGABEZIARIK, ETA LANA TOPATZEA EZ ZEN PROBLEMA”


Alargunak, egoera larrienean

Egungo pentsio sistemak ez ditu berdin kolpatzen pentsiodun guztiak. Emakume alargunen egoera da kaskarrena: bikotekidearen pentsioaren % 52 besterik ez zaio geratzen alargunari, eta etxean lan egin dutenen kasuan, oso pentsio baxua jasotzen dute.

“1.080 beharko genituzke gutxienez hilabete amaierara iristeko”. Seme-alabek lagundu izan diote Blancari [asmatutako izena da] bere burua gastuak ordaindu ezinda ikusi duenean. Kontribuzioko gastuak, telefonoa, gasa, janaria, aseguruak... “Bergia jarrita ibili behar izaten dut. Nire semeari ere zenbat aldiz esan ote diot argiak behar ez direnean itzaltzeko?”. Duela 33 urte hil zen Blancaren senarra; orain 90 urte ditu. Lan egin badu ere, ez du inoiz euro bakar bat ere kotizatu. Alarguntasun pentsioa da orain jasotzen duena; 677,40 euro, bere kasuan.

Zumaiara lanera etorri zen Blanca, hotelera. Bost urtez aritu zen bertan lanean. Hendaian jarraitu zuen ondoren: “Lan baldintza askoz ere hobeak genituen, baina han ere ez kotizatu izanak harritzen nau”, dio Blancak. Ezkondu, eta Zumaiaren geratu zen jarraian; hurrengo urteetan, hiru seme-alabak zaintzen jarraitu zuen, etxean lanean.

Bestelakoa da Patriciaren egoera [izen asmatua hau ere]: “Bizi osoa eman dut lanean, hamahiru urte bete nituenetik”.



707,76 euro kobratzen ditu hilero Patriciak.

Orain 74 urte ditu, eta guztira 45 urte lanean igaro arren, azken 15 urteak soilik izan ziren baliagarriak Gizarte Segurantzarentzat, PSOEk atera zuen lege bat zela medio.

“Gorputzak esan zidan ezin nuela gehiago 60 urte bete nituenean”, dio Patriciak. Hala, pisua saldu beharrean ikusi zuen bere burua. Hala ere, 65 urte bete arte itxaron behar izan zuen pentsioa jasotzeko. “Kasualitatez, beste lege berri bat jarri zuten indarrean: sei hilabete gehiago kotizatu behar nituela esan zidaten”. Gizarte Segurantzaren ordaindu zituen Patriciak hilabete haiek, baina ez zen nahikoa izan. Hori ordaindu ondoren ere, urte eta erdi gehiago kotizatzeke eskaera egin baitzioten. Bere bikotekideak jasoko zuen pentsioa eta berea kontuan izanik mila eurora helduko

zirela esan zieten Gizarte Segurantzatik. Egoera, ordea, ez zen espero bezala atera: eskatutako urte eta erdi hori ordaintzen ari zela, alargun geratu baitzen Patricia.

Kotizatzeke eskatutako bi urte horien ordainetan, soilik 47 euroko pentsioa jasotzen zuela ohartu zen ondoren. Alarguntasun pentsioagatik 628,08 euro, eta Lanbidetik 30,36. Guztira, 707,76 euro. Gizarte Segurantzaren bulegoetara joan eta adar jotze hutsa izan zela esan zien Patriciak, baina ez zioten beste irtenbiderik eman.

Pentsio altuak dituztenei proportzioan gehiago igo orde, gutxien dutenei igotzeko eskakizuna egin dute biek. “Niri dagokidana soilik eskatzen dut, lan egin dudan urte guztietan kotizatutakoa”, gaineratu du Patriciak. ■■■



IRABAZI 300€
ETA 6 OTAR EDER
ZURE EROSKETEKIN

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Bozkatu Facebook bidez eta irabazi 100

ABENDUAREN 10ETIK 30ERA



Marraz marra trazatutako bidea

Irene Irureta eta Karmele Gorroño, ilustratzaileak

Marrazkigintza ogibide bihurtu zuten Irene Iruretak eta Karmele Gorroñok, duela hiru urte. Beraien ekimenetik nahiz beste artista batzuekin kolaboratuz, hamaika proiektu garatu dituzte ordutik. Durangoko Azokan eskuragai izango dira horietako hiru.

Testua: **Julen Aperribai**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Oinarrizko legea urratu, eta elkar ukitzera iritsi diren bi marra paraleloren istorioa dirudi Irene Irureta eta Karmele Gorroño ilustratzaileenak. Ukitu baino, korapilatu ere egin dira bien bideak, unibertsitatean elkar ezagutu zutenetik hona. Arte Ederretako lizentziaturan ezagutu zuten elkar, eta, urte batzuetan nork bere bidetik jarraitu ondoren, Irrimarra sormen bikotea eratu zuten 2016an, eta hala egin zuten profesionalizaziorako saltoa.

“Modu ludikoan” hasi ziren elkarrekin marrazten, gogora dakartenez: “Oso eroso aritzen ginen elkarrekin lanean, eta, pixkanaka, unibertsitateko lanak ere elkarrekin egiten hasi ginen”. Behin lizentziatura amaituta, nork bere bidetik jarraitu zuen, baina inoiz ez zioten utzi elkarrekin marrazteari. “Noizbehinka elkartzen ginen lantxoren bat egiteko edo proiektu pertsonaletan murgiltzeko”. Harremana

mantendu zuten, eta harremanaren ezinbesteko oinarria zen marrazkigintza bientzat. Hari horri tiraka sortu zuten Irrimarra. Ordura artekoaren jarraipen naturala izanagatik, ilustrazioa ogibide bihurtzeari erreparoa baziotela aitortu dute. “Urteak igaro ahala, gero eta argiago ikusi genuen hartu beharreko norabidea zein zen; erabakia hartzea besterik ez zitzaigun falta. Beldurra bagenuen, noski, baina baita emozio eta intriga puntu bat ere”. Ofizioaren zoritxarreko ezaugarria da, izan ere, ezegonkortasuna. Bolada onei heldu eta jarraipena emateak zabaltzen omen du bidea, baina horretan gehiegi tematzeak baldintza lezake sormen gaitasuna, eta, are, emaitzak esperotakoak ez direnean, prekarietatera kondenatu artista. Halako buruhausterik ez dute ibili, momentuz, Iruretak eta Gorroñok. Tentuz heldu diote gai horri, ordea, euren lanbidean aurreikuspenak sarritan alferrikakoak direla jakitun: “Lehen urte hauek oso politak izan dira, baina egonkortasuna ez da ogibide honen



irrimarra



ezaugarria, eta askotan kosta egiten da hurrengo hilabeteen lanik izango duzun edo ez jakin gabe aurrera jarraitzea”.

Era berean, lanbideak eskatzen du zabalik egotea. Zabalik, proiektu berrietara, eta zabalik, horietako bakoitzaren berezitasun eta exijentzietara. Album ilustratuak, kartelak, horma irudiak... denetarik egiten dute; baita txoko honetatik idatzitako lerroak biziarazten dituzten ilustrazioak ere. Batzuetan, euren ideietatik abiatzen dira, eta, besteetan, enkarguz egiten dute lan. “Gehien gustatzen zaiguna proiektu ezberdinak tartekatzea da; horrela, ez dugu lan batekin nekatzeko edo aspertzeko arriskurik izaten, eta freskoago heltzen diegu proiektu berriei”, azaldu dute.

Eredu berrien bilaketan

Hasieratik amaierara arteko prozesua elkarrekin egiten dute bi ilustratzaileek, proiektua edozein izanda ere. Premisa bat da hori beraien lanean, nahiz eta kilometro batzuk badiren bi kideen bizilekuen artean. Galdakaon duten lantegian aritzen da Gorroño, batez ere, eta Irureta, berriz, etxean atondua duen estudioan. Proiektuek markatzen diete erritmoa, eta horren arabera antolatzen dute lana. Astean behin edo bitan elkartu ohi dira, hala ere; Galdakaon, normalean. Maiztasuna bezala, aldakorra dute lanei heltzeko modua ere. “Lan bakoitzaren testuinguruaren arabera” jarduten dute, diotenez. Kolore bizien erabilera bada, ordea, haien lanean etengabe

errepikatzen den ezaugarri bat. Forma esferikoek eta pertsonaia irribarretsuen erabilerak ere egiten ditu bereizgarri haien marrazkiak. Haurrei begira sortutakoak irudi lezakete, baina ez da hori xede nagusia: “Ilustrazioaren inguruan sortu nahi dugun giroari erreparatzen diogu, publikoaren adinari baino gehiago”. Ez baitute sinesten adin tarte bati begirako ilustrazioek eta lanek ezarritako arau jakin batzuk bete behar dituztenik ezinbestean. “Uste dugu, haurrei zein helduei dagokienez, gustuak era askotakoak direla, eta badirela koloreak gustatzen zaizkien helduak zein kolore gutxiko marrazkiak gustuko dituzten haurrak”.

Kategorizazioetatik aldentzen dira pertsonaiei dagokienez ere. Emakumezkoak izaten dira horietako asko. Eredu berriak sortzen saiatzen dira, “errealagoak eta anitzagoak”. Irudi bakar

Irene Irureta

- **Adina:** 30 urte.
- **Ikasketak:** Arte Ederretan lizentziatura eta Ilustrazioko goi mailako zikloa.
- **Lanbidea:** ilustratzailea.
- **Marrazkilaria ez banintz...** sorkuntzarekin zerikusia duen beste zerbait.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** sozializatzea eta zeramika lantzea.



batek asko esan dezake pertsonaia bati buruz, diotenez, eta, behin esaten hasita, zergatik ez esan nahi duten hori esan: “Gure asmoa imajinarioa zabaltzea da; erreferente desberdinak sortzea, ikusleek eta irakurleek haiekin identifikatzeko aukera izan dezaten”.

Poltsa betearekin, Durangora

Bereziki oparoa izan da udazkena Irrimarrakoentzat. Berriki plazaratutako bi lanetan buru-belarri aritu dira: Migel Joakin Eleizegi *Altzoko Handiaren* inguruko marrazki bildumako bi ale berritan eta Pello Añorgarekin batera ondutako Ametsen basoa ipuin liburuan. Horrez gain, Karmele Mitxelena idazlearen Erakusleihoan izeneko narrazioa ilustratu dute. Peru Abarka lehiaketa irabazi zuen Mitxelenak azken lan horrekin, apirilean. Durangoko Azokan

izango dira hiru lan horiek. “Aukera polita da gure lana erakusleihoan jartzeko eta publiko zabalago batengana iristeko”, diote Iruretak eta Gorroñok.

Koldo Izagirre idazlea izan dute bidelagun Altzoko Handiaren inguruko bilduma elikatze lanean, eta, diotenez, hori izan da Durangoko Azokan izango diren hiru lanen arteko elkarlanera gehien behartu dituen. Hitzek eta marrazkien arteko elkarriketek eta haien arteko elkar eraginetik joan dira lana osatzen, fintzen: “Hasierako ideiatik abiatu, eta lehen irudiak sortzen ditugu. Koldok hitzak moldatzen ditu, eta, testua berriro bueltan datorkigunean, berriz ere irudiak egokitzen ditugu; eta horrela etengabe, lana bukatutzat eman arte”. Sormen prozesua luzea izan dela aitortu dute, baina “lan egiteko oso modu interesgarria” da beraientzat. “Irudi eta hitzen arteko jolas hori erreala da. Askok ikasten dugu”, zehaztu dute. Hala aritu ez diren kasuetan, testu amaituen gainean egin dute lan. Edonola ere, idazleek irudiak sortzeko orduan “askatasun handia” eman dietela nabarmendu dute.

Aldizkako elkarlanekin eta kolaborazioekin jarraitzeko asmoa du Irrimarrak, aurrerantzean ere. Proiektu eta plaza berrietarako bidea hala egin dute, eta lan egiteko modu hori erakargarria zaie. Ez dute kolektiboa handitzeko beharrik ikusten: “Irrimarra bi lagun gara; ez bi ilustratzaile bakar baten gisan lan egiten, baizik eta bi pertsona ilustratzaile bakar baten gisan lan egiten”. ■■■

Karmele Gorroño

- **Adina:** 32 urte.
- **Ikasketak:** Arte Ederretan lizentziatura eta Irakaskuntzako masterra.
- **Lanbidea:** ilustratzailea.
- **Marrazkilaria ez banintz...** jostuna edo sukaldaria.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** egunaren arabera, kalean lagunekin zerbait hartzea edo sofán goxo-goxo jostea.

BAZKIDE KLUBEKO ZOSKETAK



On Gourmet: Xabier Ureta



Errigora: Naiara Anzizar, Unax Romatet
eta Jokin Irigoien



Aita Mari jatetxea: Ane Aizpurua



On Gourmet: Edu Aristi

ABENDUAK 9

Green Valley,
Sanagustin
kulturgunean. Bi
sarrera bikoitz.

ABENDUAK 16

Bi lagunentzako
bazkaria: Aita Mari
jatetxean.

ABENDUAK 23

Gatibu, Sanagustin
kulturgunean. Bi
sarrera bikoitz.

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

IRUITZ ILEAPAINDEGIA: Analisi kapilarra doan.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN ELEKTRIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

GOLDEN GATE AKADEMIA: %20ko matrikulazioan.

A3: %5eko deskontua.

TALAIA: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.



ZOZKETAK

ONURA: Fisioterapiako bonoak.

ONGIZAN: Fisioterapiako bonoak.

ANTZERKIRAKO SARRERAK: Emanaldi bakoitzeko hiru lagunentzako bina sarrera.

SANAGUSTIN KULTURGUNEA: Kontzertuetarako sarrerak.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba

E-emailez: administrazioa@baleike.eus

Telefonoz: 943-86 15 45




Hamalau!

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Hamalau dira guztira.



Mezua

Erabil ezazu honoko alfabetoa Olentzerok zer dioen jakiteko. Iruditxo bakoitzaren azpiko laukian dagokion letra jarri eta hitzak osatuko dituzu.



Itzala

Ea, bide batez, zein dira Olen-tzeroren eta zakurraren itzal zuzenak?




Handitik txikira

Ordenatu itzazu hostoak, handitik txikira. Jarri hosto bakoitzaren alboko biribilean ordenari dagokion zenbakia.

PUZZLEA

Hemengo pieza hauek beheko puzzlearenak dira, baina hamar falta zaizkigu puzzlea erabat osatzeko. Zeintzuk? Non geldituko zaizkigu zuloak? Gainera, hemengo piezetako bat okerra da, ez dagokio puzzleari. Zein da?



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

JUARI
risti
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10

tel. 943-05 05 77

KABI
TABERNA

Platixa Ebezarreta, 15
943-11 74 27

Kaittermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20

Tel./faxa: 943-86 03 20

kalari

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est. 2016

Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84

MAIAUR
ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

CROISSANTERIA

pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2

Tel. 943-86 22 46

MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21

tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Elengabeiko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar induristegia, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

www.carroceriasnoia.com

OLIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1

Tel. 943-14 31 12
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Joxe Mari Kortia Induristegia, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostola@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibitokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943-01 63 53

Artrosia



ROSA AZKUE

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Artrosiaren sindromeak, giltzaduretake (artikulazioko) mina ez ezik, hainbat mailatako muga funtzionala eta bizi kalitatearen murrizketa dakartza. Giltzaduretake minaren kausa ohikoena da eta oinazearen eta ezgaitasunaren zergati arruntenetako bat. Askotan, gogo aldaratearen alterazioekin eta loaren nahasmenduarekin lotzen da.

Arazotzat hartu izan bada ere, zahartzearen ondorio normala da, gaur egun badakigu artrosia hainbat faktoreren interakzio konplexu baten emaitza dela; genetikoak, tokiko hanturak (inflamazioa), indar mekanikoak eta prozesu zelular zein kimikoak.

Arrisku faktoreak daude: adina, sexua (emakumezkoetan arruntagoa da), gizentasuna, karga faktoreak (kirolaren praktika profesionala, zenbait lan jarduera), traumatismoak, arazoak garapen edo sortzetiko gaixotasunak, Kaltzio eta azido urikoaren metaketak, eta beste eritasun metaboliko edo endokrino batzuk.

Tratamendua

Oinazearen arintzea, hantura txikiagotzea, giltzadura funtzioa hobetzea eta artrosia eta ondoriozko kalte estrukturalaren aurrerakada atzeratzea dira tratamenduaren helburuak. Gaixotasunaren

prozedura terapeutikoaren barne sartzen dira neurri ez-farmakologikoak, tratamendu farmakologikoa eta giltzadura ordezkatzeko ebakuntza (azken aukera).

Neurri ez-farmakologikoak

Hasierako esku hartzea izango da eta tratamenduaren oinarritzko zutabea..

- Heziketa: behar bezala informatzea, hau da, gaixotasunaren bilakaera naturala progresio motelekoa dela ezagutzea.
- Ariketa: tratamendu kontserbatzailearen oinarritzat hartzen da. Pazientearen bizi kalitatea hobetzen du. Lesio arriskua ahalik eta txikiena den balditzetan egingo da ariketa, kontaktuzko ariketak alde batera utzirik.
- Eskuzko terapia: mugimendu errepikakor pasiboak erabiltzen dituen giltzaduraren mobilizazioa da. Ariketa eta eskuzko terapiak konbinatzeak oinazea arintzen du.
- Pisua galtzea: gehiegizko pisua edo gizentasuna duten pazienteek pisua galtzen eta galera mantentzen saiatu behar dute.
- Ortesia: makulua erabiltzea gomendatzen da artrosia duen beheko gorputz adarraren kontrako aldean.
- Bendatze funtzionala: giltzaduretake hezurren arteko estresa murrizteko eta

ehun bigunak deskargatzeko balio du.

- Eragile fisikoak: termoterapiak, akupunkturak, bainuterapiak, eta hain konbentzionalak ez diren beste terapia batzuek (yoga, lasaitze ariketak, eremu magnetikoak, fitoterapia) froga zientifiko ahulak erakutsi dituzte.
- Higene posturala: postura egokiak ikastea garrantzitsua da gainkargak ekiditeko.

Tratamendu farmakologikoa

Banakakoa izango da eta hainbat faktoreren mende egongo da: minaren intentsitatea, oinazea okerrean den eguneko unea, eta eraginpean dauden giltzadura motak eta kopurua.

- Antiinflamatorio topikoak: belauneko eta eskuko artrosi kasuetan.
- Aho bidezko antiinflamatorioak ezesteroideak: pazientearen arrisku kardiobaskularra, gastrointestinala eta giltzurrun funtzioa baloratu behar dira.

Ondorioak

- Helburuak hauek dira: tratamenduaren sintomak kontrolatzea eta gaixotasunaren progresioa moteltzea.
- Neurri ez-farmakologikoak dira artrosia tratatzeko oinarria.
- Tratamendu farmakologikoak banakakoa izan behar du. ■■■



SOLOZABAL
autoeskolak

Etkezarrreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com



Talaraia
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Tapaia
taberna

Enbena kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73



ITAKUN
TABERNA

Izasterri, 3
tel. 943-86 52 89



TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Soltxibak, oilaskoak...
Garagardotegia aukeran

Ondarra plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com



UZKUDUN
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xantia
ALTZARIAK

Amaiko plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantiaaltzariak.com



yoana
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 beheko
943-14 32 78



Zalla
taberna

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urra Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA



ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com

BASADI, 12
20750 ZUMAIA
tel. 94386 10 18 / Fax: 94301 61 26



Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia

Aste auzategia • 20750 Zumaia • tel. 943-14 34 41 • faxa 943-86 51 61



BALEIKEK
25 urte

zatoz gurekin ospatzera



BIYONA
BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

Santiago auzoa, 12 - ZUMAIA
943-14 34 43
www.biyona.net

SUKALDEAK
Bainugelak
ETXEKO ALTZARIAK
Papel pintatuak
LEIHOAK
Keramika
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Jostailua aukeratzen



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Badatoz Gabonak eta horiekin batera opariak erosteko garaia.

Egia da, adin batetik aurrera, haurrek beraiek aukeratzen eta eskatzen dituztela, baina, askotan, gurasoek dugu ardura konplikatu hori. Merkatuan gehiegi dago aukeratzeko, izugarrizko negozioa dago honekin ere. Ez da erraza jostailu egokienak hautatzea, benetan egokia zer den esatea ere ez. Baina irizpide umil batzuk baditugu hezkuntzan gabiltzanok eta gaurko honetan hauek azalduko ditut.

Kontuan izan beharreko lehenengo irizpidea materiala da. Saiatu material ezberdinetako jostailuak eskuratzen. Urte askotan zehar, plastikoa izan da errege. Badakigu haur baten garapena, lehenengo urteetan, alderdi manipulatio eta sentsorialean oinarritzen dela. Zer gertatzen da plastikoa bakarrik eskaintzen badiogu? Mota bateko sentsazioak bakarrik jasoko dituela: tenperatura bat, soinu bat, dentsitate bat, ukimen bat... Aldiz, material ezberdinak eskaini ez gero, jasotzen duen informazioa aberasgarriagoa izango da: Egurra, oihala, naturako objektuak, metala,... Material ezberdinez egindako jostailu eta objektuek,

estimulazio ezberdinak eskainiko dizkote, eta horrek, esan bezala, lehenengo etapako bere garapenean eragin handia izango du.

Haurrari protagonismoa ez kentzea izango da beste kontu bat. Hizkuntza ezberdinak hitz egiten dituen panpina, kolore guztiak dituen tren, soinu egiten duen kamioia, abesten duen txakurra, pantailak... jostailu batzuek dena egiten dute, eta haurraren jolasa pasiboagoa bihurtzen dute. Gogoratu: jostailuak zenbat eta gutxiago egin, haurrak gehiago egingo du.

Aurrekoarekin oso lotuta, jostailu neutroagoak aukeratzea gomendatzen da, horrela haurraren irudimena eta sormena sustatzeko. Egia da, hasieran, estimulazio handia eskaintzen duten jostailuek, atentzioa ematen dutela, horretarako egiten dituzte, baina badakigu, baita ere, denbora gutxian haurrak interesa galtzen duela (zenbat

**JOSTAILU
NEUTROAGOAK
AUKERATZEA
GOMENDATZEN DA,
HORRELA HAURRAREN
IRUDIMENA ETA
SORMENA SUSTATZEKO**

aldiz ikusi dugu haurra jostailua alde batera utzi eta kaxa eta paperarekin jolasten hasten dela...). Zenbat eta ezaugarri gehiago izan jostailu batek, orduan eta aukera gutxiago irudimenerako eta sormenerako. Ile horia duen, ingelesez hitz egiten duen eta beti irribarretsu dagoen panpina neskato bat, beti hori izango da; aldiz, ilerik ez badu, keinu neutroa badu eta hitz egiten ez badu, gauza ezberdin asko izateko aukera izango du. Egurrezko makil bat, adibidez, ezpata bat izan daiteke, kanabera bat izan daiteke, barita magiko bat izan daiteke...

Jostailuaren aldaera motak kontuan hartu. Batzuk, eraikuntzarako izateaz gain, jolas sinbolikorako ere erabili daitezke. Mahai jolas batek bakarka jolasteko aukera eman dezake edo taldean jolastekoa. Zenbat eta erabilera ezberdin gehiago izan, orduan eta iraunkortasun handiagoa eta haurrei jolaserako aukera gehiago eskainiko dizkiete.

Bukatzeo, materialaren kalitatea eta produkzioa kontuan hartzea ere komeni da: Non egin den jostailua, zer lan baldintzatan, zer material erabilia, ingurumenarekin errespetuzkoa den...

Eta azken gomendioa: kalitatea begiratu eta kantitatea mugatu. ■



Zumaia eta Deba arteko Biotopoaren ikuspegi panoramikoa.

Edonor ikertzaile? Eta zergatik ez?

Aurten, estreinakoz, BIOTOP izeneko biodibertsitate topaketa egin du Geoparkeak. Errotaberriko ibarrera bertaratutakoei gure lurraldeko aniztasun biologikoa ezagutarazteaz gain, ekimenak beste bi helburu bete nahi izan ditu: hots, Herriarren Zientzia sustatu eta hori egiteko dauden erremintak maneiatzen erakutsi. Testua eta argazkiak: **Gonzalo Torre.**



Pitxartxar burubeltza.

Herritarren Zientzia azken urteetan bolo-bolo dabilen praktika da eta publiko orokorrak ikerketa zientifikoen jardueretan parte -hartzea du helburu. Hala, herritarrek euren lan- intelektuala, ezaguerak, erremintak eta bestelako baliabideak jartzen dituzte ikerketaren alde, modu guztiz aktiboan. Izan ere, kaleko ikertzaileek datuak eta esperientziak partekatzeaz gain, arazo eta galdera berriak mahaigaineratu ohi dituzte, eta kultura zientifikoaren esparru berri bat sortzen da.

Ikerketa eremuak zabaltzeko duten indarrak eta ahalmenak kontziente, makina bat unibertsitatek, ikerketa zentrok eta gobernuk Herritarren Zientziaren sareak sustatu dituzte arrakasta handiz. Esaterako, jatorriz Asiako hego-ekialdeko tigre eltxoaren hedapena iberiar penintsulan kontrolatzeko *Mosquito Alert* ekimena, Kantabriako ibai -ekosistemei segimendua egiteko *Red Cambera* izeneko, edo basabizitza ezagutzeko *Project Noah* nazioarteko iniziatiba. Gertuago, *Urdaibai Bird Center* etxe inguruko hegaztiak ezagutzea helburu duen *Inguruko Hegaztiak* delako esperientzia, edo Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ibaiak eta itsasoa zaintzeko *Aztertu* egitasmoa. Hor daude, baita ere, geroxeago hizpide izango ditugun *Ornitho.eus* edo *Natusfera* plataformak ere.

Ikastetxeetan, berriz, Herritarren Zientzia mekanismo berritzailea da teknologia, matematika eta, orokorrean, zientziak irakasteko, zientzia jarduera soziala dela eta bizi-bizirik dagoela agerrarazteko aukera paregabea eskaintzen baitu.

IKASTETXEETAN, HERRITARREN ZIENTZIA MEKANISMO BERRITZAILEA DA ZIENTZIAK IRAKASTEKO

SAKELAKO TELEFONOETAN DATU ZIENTIFIKOAK BILTZEKO APLIKAZIO DIGITALEN ZERRENDA GERO ETA LUZEAGOA DA

Landa-koadernoaren itxura berria

Herritarren Zientzia esamoldea nahiko berria da; ez, ordea, afizionatuek diziplina zehatz bati buruz informazio baliogarria biltzeko ohitura. Imaginarioan ditugu txori edo intsektu-zaleak, mendira joateko arroparekin jantzita eta landa -koadernoak datuez eta marrazkiez beteta. Gaur egun ere usadio hori mantentzen da, baina naturazale asko dira papera eta lapitza erabili beharrean, sakelako telefonoarekin moldatzen direnak. Hau da, marrazkia egin ordez argazkia atera ohi dutenak eta bolalumaren tokian aplikazio digitalak eskuratzen dituztenak.

Sakelako telefonoetan datu zientifikoak biltzeko aplikazio digitalen zerrenda gero eta luzeagoa da: *E-bird*, *i-Naturalist*, *Mosquito Alert*, *Natusfera*, *Ornitho*,... Dena den, guk zerrendako azken bietan jarriko dugu arreta, bai Geoparkeak horiek zabaltzen lagundu duelako, baita proiektuak kudeatzeko erabili izan ditugulako ere.



Ornitho.eus plataformaren logoa.

www.ornitho.eus

Ornitho.eus herritarrei irekitako zientzia ataria da eta EAEko naturari buruzko informazioa biltzea nahiz zabaltzea ditu helburu. Suitzan jaioa eta, oinarrian, hegaztiei buruzko informazioa jasotzeko diseinatutako plataforma hau Aranzadi Zientzia Elkartek kudeatzen du, eta Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemari lotuta dago. *Ornitho.eus* erremintaren bitartez, bizidun -taldeen aipua

erregistra daitezke eta 2015. urtean sortu zenetik EAEko 254 udalerrietako 600.000 ekarpen baino gehiago izan ditu, gehienak hegaztienak. Hala ere, zerrendetan badira, baita ere, anfibioak, narrastiak, ugaztunak, itsas ugaztunak, burruntziak, tximeletak edo espezie inbaditzaileak, Asiako liztorra, panpako- lezka edo zebra -muskulua, esaterako.

Natusfera, bestalde, *Global Biodiversity Information Facility* (GBIF) nazioarteko azpiegituraren i-Naturalist izeneko aplikazioaren moldaketa bat da eta hona ekartzeko arrazoia, besteak beste, plataforma honetan proiektuak sortzeko eta zabaltzeko erraztasuna da. Izan ere, oso modu intuitiboan, landu beharreko egitasmoaren eremua mapa batean marraztu daiteke eta datuak biltzeko formularioa diseinatzea arazorik gabe egiten da. Argazkiak igotzea ere posible da eta behatutakoa identifikatzen laguntzeko komunitate handia eta zeharo aktiboa dago beste aldean. *Ornitho*aren kasuan bezala, behaketak espazioan kokatzeko geolokalizazioa erabiltzen du.

BIOTOP, *Bioblitzak* Geoparkera ekarrita

Bioblitzak Ameriketako Estatu Batuetako Parke Nazionalen Zerbitzuak sortutako Herritarren Zientzia erabiltzeko ekimenak dira. Funtsean, toki eta data zehatz batean eginiko datu bilketa bat da, bertaratutako naturazaleek egiten duten laginketa bat, hain zuen ere. Saio bakoitzean bizidun talde zehatz bati edo askori buruzko informazioa bil daiteke eta arrakastatsua izateko parte -hartze zabala eskatzen du, emaitza horrela izango baita



BIOTOP jardunaldia iragartzeko irudia.

emankorra. Azken helburua eremu baten fauna eta floraren errolda ahalik eta osoena egitea da, leku horren aberastasun biologikoa hobeto ezagutzeko.

Laburbilduz, Bioblitz bat biodibertsitatearen inguruko topaketa bat da eta Geoparkeak kontzeptu hori erabili du esperientzia hari gurean izena jartzeko. Horrenbestez, eta Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzaz, BIOTOP izeneko topaketa lehenbiziz antolatu da Errotaberriko bailaran. BIOTOP ekimena, helburu zientifikoak betetzeaz gain, herritarrei formakuntza eskaintzeko eta ingurumen heziketa sustatzeko ekintza bat ere bada.

Jardunaldiak, halaber, parte-hartzaileek *Ornitho.eus* plataforma eta horren aplikazio mugikorra -*Naturalist*- ezagutzeko parada eskaini zuen.

Errotaberriko atsedenekua abiapuntu hartuta, irailaren azken larunbatean 50 lagun inguru elkartu ginen Sakonetara eramaten duen bailaran. Bertatik, talde txikietan banatuta eta adituez lagunduta, ibarreko hegaztiak, onddoak, landareak, anfibioak, armiarmak edota narrastiak ezagutzeko eta espezieak zerrendatzeko irteera motzak antolatu ziren. Goizean zehar joandako helduek zein umeez 130 espezie identifikatzeko aukera izan zuten eta eremu horretan inoiz egin den erroldarik handiena osatzen lagundu zuten.

Horrenbestez, lortutako emaitza ezin hobeak eta jendearen erantzuna ikusita, hurrengo urteetan ere pareko esperientziak antolatzeko asmoa du Geoparkeak. Hala, lurraldearen inguruko ezaguera zabaltzeaz gain, horren zaintzan herritarren konpromisoa ere handitzea ere espero da. Izan ere, gaur egun edozein izan daiteke ikertzaile eta, erreminta egokiak erabiliz gero, informazioa kontsultatzea eta partekatzea denon eskura dago. ■



Umeez ere ederki gozatu zuten.



Burruntzia.

Gure harrobiak



IMANOL AZKUE

@ImanolAzkue

“Zestoako harrobia, hau dek hau erokeria, ama natura apurtu, herriaren hilobia”, abesten zuten Lin Ton Taun zestoarrek, Osinbeltzeko harrobia gogoan. Geuk ez daukagu hainbestekorik, baina inork gutxi abestu badie ere, eduki, eduki genituen harrobiak Zumaian.

Harrobirik ez dago martxan gaur egun gurean edo inguruan, baina antzina bazeuden, eta ez gutxi, gainera. Garai batean, ohikoa zen harriak erabiltzea etxeak eraikitzeko, horma sendoak egiteko, bideko zuloak tapatzeko, betelanak egiteko..., eta materiala kanteretatik ateratzen zuten, hasieran kolpeka, aurrerago dinamitarekin, haitza bistan zegoen lekuetatik. Harrobi batzuk, gainera, udal lurretan zeuden, eta herritarrek baimena eskatzen zuten harria ateratzeko: 1782an, “Este Ayuntamiento dio licencia a dicho Don Vicente de Echazarreta para que pueda arrancar piedra en el encinal de Ardanza, sin daño de las Encinas”¹; beste aipamen hau, berriz, Andremerialdean kutsakorren ospitalea egin behar zutenekoa da, 1894koa: “que por el mismo Sr. Mugica se ha manifestado que no tiene seguridad completa de que

salga buena piedra en edificación en los terrenos de desmonte donde se ha de edificar, por lo que se podría arrancar en la parte izquierda del camino a Arridoquieta”², eta hau ere bai inguru hari buruzkoa, 1911koa: “instancia suscripta por D. José Vicente Aizpurua, vecino de esta villa (...) por la que solicita el terreno hueco que deja la cantera existente entre la casa de Amasenecoa [Goikotorrearen ondoan] y el hospital de contagiosos, sito en Arritoquieta”³.

Harrobi handienak Flores baserriaren oinetan zeuden, Santiago aldera eta Basusta aldera, Conde Del Vallerenak, eta harri gorri hark izena ere bazeukan: “proeskua”. Horrela, 1800eko agiri batean, Manuel Sarasola lur neurtzaileak Basadizarra neurtu zuela eta, harrobi bat aipatzen da: “havia medido con toda escrupulosidad la porcion de las Baltzas [balsas, hau da, basadiak] y juncales que acaban de cerrarse desde Usurbiribillaga hasta el parejo de las canteras de Torreaga”⁴; beste aipamen hau, berriz, Iberduerok Basadiberrian estazioa egin behar zuenekoa, 1948an: “le es de todo punto necesario de cierto número de metros de piedra de mampostería, que, hasta la fecha, ha ido extrayendo de una

cantera sita en los terrenos del Conde del Valle (...), pero habiendo llegado la obra al punto de elevación necesita de piedra de calidad superior a la usada hasta ahora, y teniendo conocimiento que el Ayuntamiento posee en el lugar denominado San Telmo de un terreno pedregal de piedra de superior calidad”⁵. Hain zuzen ere, San Telmo aldean, Larretxon, gaur egun Flysch hotela eta Aizgain etxea dauden lekuan, Nicolas Odriozola *Txintxuak* harrobia zeukan XX. mendearen hasieran, baina inguruko bizilagunak ez zeuden oso konforme, 1919an: “solicitando la prohibición y si no la reglamentación de la explotación de la cantera de arranque de piedra que posee D. Nicolás Odriozola, a pocos metros de las casas de la calle de San Telmo”⁶. Beste harrobi bat, ikusteko ez hain erraza, Inpernupekoa zen, eta hango harria erabili zuten Paolaldeko lanak eta ibaiko eskoilera egiteko; adibidez, mataderia berrian (Algorri interpretazio zentroan), 1905ean: “De la instancia suscripta por Don Manuel Azurmendi, encargado de las obras de construcción del nuevo Matadero por la que expone, desea utilizar parte de la piedra existente en el punto denominado ‘Infernupe’ para la construcción de las paredes del citado matadero”⁷; eta eskoileran, 1940an: “un escrito

de Ereño y Compañía contratistas de las obras de esculperado de la margen derecha del Río Urola por el que se solicita la extracción de piedra de la cantera denominada Infernupe, el tendido de una línea de energía eléctrica para el montaje de grúas para la extracción de la citada piedra y el de una vía sobre terrenos del común para la conducción de la citada piedra al embarcadero de la ría”⁸; hain zuzen ere, azken lan horretarako trena ere jarri zuten (ederki azaltzen du nola, marrazki eta guzti, Rafael Del Pilarrek⁹).

Bazeuden beste harrobi batzuk Karakas, Basakarte eta Arteaga baserrien ondoan, baina hango harria zeregin berezi baterako zen: litografiarako, hau da, kareharriaren gainean grabatzeko eta inprentan erabiltzeko. XIX. mendearen amaieran, Karakasko erriberan martxan egon zen harria zerratzeko fabrika, eta haren paretaren arrastoak desagertu bazaizkigu ere, izenak oraindik ere irauten du: Fabrikazarra.

Herritik urrunduz gero, hor dauzkagu harrobien beste arrasto batzuk Itziar aldera igotzean, eta Agoten, Ibañarrietan... Horietatik, hirautila, karea edo porlana egiteko harria ateratzen zuten, eta hurre zeuden fabrikak:



Artadirako errepidea harrobi izandakoaren ondotik abiatzen da gora.



Flores edo Proesko harri gorri ederra bistan, erakusketarako bezala.

Narrondon, Beduan, Agoten, Arroa Behean...

Getarian, berriz, Kanpaiagoko eta Bizkarragako harrobiak zeuzkaten, eta horien izenak sarritan azaltzen zaizkigu Zumaiaiko herri lanetan, baita harrien balorazioa ere, herri lan baterako kontratazioan, 1913an: “Y como quiera que la piedra de la cantera de Campayaga aunque algo mejor en calidad resulta cara comparada con la de Biscarraga que es casi igual (...) se desecha la proposición de D. José María



Goicoechea por los malos resultados que da la piedra del mar que ofrece en su proposición”¹⁰.

Azkenik, baziren beste harrobi batzuk harraldean, Zumaia eta Deba artean, Itsasperen pare horretan: galtzada harrienak. Harriari lauki forma emanda, gabarretan ekartzen zuten Zumaiaiko portura, eta hango harriekin estali zituzten Zumaiaiko kaleak. Hauxe horren froga, 1900ekoa: “De la instancia de Don Manuel Aizpurua, rematante del

GIPU-

**Etorkizuna
orain**

Gipuzkoa etorkizuna da.
Iritsi den etorkizuna.



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN



Larretxon, Aizgain etxea harri gainean dago eraikita, eta harrobian baratzea jarri zuten gero (gaur egun Flysch hotela dago gainean).



Harrobia izandakoaren arrastoak Karakasko erriberen ondoan.



Arronamendi parean zeuden harraldean harrobiak.

adoquín necesario para la reconstrucción de las calles de esta población, por la que expone , que si bien tiene preparada en los depósitos de las canteras la piedra necesaria para dar cumplimiento a su compromiso, no ha podido conducir a éste hasta la fecha, más que una pequeña cantidad de la misma, por el mal estado de la mar"¹¹. 1923an, Debako Florencio Lamiquisek baimena eskatu zion Udalari moilan adokina deskargatzeko. Galtzada harrien harrobiak eta industria hori ederki azaltzen ditu Javier Carballo¹².

Harrobietatik ateratako harriekin eraikin eterrak egin ziren gurean. Baina horietaz hitz egingo dugu hurrengo batean... ■■■■

¹ Zumaiaiko Udal Artxiboa 69 (130), 1782-01-20.

² ZUA 2826 (17), 1894-07-28.

³ ZUA 325 (90), 1911.

⁴ Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa 2/2172, 16. or., 1800-03-13.

⁵ ZUA 347 (31), 1948.

⁶ ZUA 332 (296V-297V), 1919.

⁷ ZUA 2831 (267V), 1905-10-12.

⁸ ZUA 343 (136), 1940.

⁹ *Arrangoleta 1945-1951 Memorias de un barrio*, 239. or.

¹⁰ ZUA 2836 (122V), 1913-01-30.

¹¹ ZUA 2829 (9), 1900-05-31.

¹² *Zumaia eta olagarroa* liburua, 135. or.

KULTURA

Rock onenari gorazarre

TESTUA: ONINTZA LETE ARRIETA

Osagaiak ikusita, batzuetan erraz nabaritzen da proiektu batek arrakasta izango duen ala ez. Esaterako, elkartzen baduzu musika talde bat zuzenean jotzen historiako rock talde onenetako baten bertsioak; horri gehitu abesbatza bat, azken urteetako ahots indartsuenetako baten bozgorailu; eta erantsi 50 herritar dantzan, zuzeneko musika horren erritmora aldakak asintzen. Queen izena gehitu osagaien nahasketari, eta ziurtatuta dago ikuskizunaren erakargarritasuna. Abenduaren 14an elkartuko dituzte osagai horiek guztiak Astindu dantza taldeak, San Pedro abesbatzak eta Dardara musika kolektiboko kide batzuek eskainiko duten ikuskizunean. Aitzuri frontoian izango da *Queen dantza eta musika* emanaldia, 19:00etan.

Hainbat dantza taularatuko dituzte kolore beltzez, zuriz, horiz eta gorritz eraikitako estilismoekin. Aukeratutako abestiak, noski, zein baino zein ezagunagoak dira: besteak beste, *Somebody To Love*, *Radio Gaga*, *I Want To Be Free*, *Don't Stop Me Now*, *We Will Rock You* eta *Bohemian Rhapsody*. Dantzari guztiek elkarrekin egingo dituzte aurreneko eta



Queen ikuskizuneko entsegua, Herri Eskolako gimnasioan. ARNAITZ RUBIO APREA

azkeneko koreografiak. Gainerakoetan, norberak erabakiko du dantzatu ala ez. Ane Azkuek, esaterako, zazpitan hartuko du parte. "Niretzat emanaldiko parte onenak *kañeroenak* dira: *Don't stop me now* eta *We Will Rock You* abestiek indar handia dute. Abesbatzarentzat, uste dut onena *Bohemian Rhapsody* izango dela, hor sekulako indarra erakutsiko dutelako". Astindu dantza taldea sortu zenetik emanaldi ia guztietan egin du dantza Azkuek, eta uste du oraingoa izango dela jende gehienak parte hartuko duena. "Niretzat ikaragarriena izango da ikustea horrenbeste jende

dantzan", azpimarratu du. "Jende berri asko apuntatu da, eta adinean ere sekulako aniztasuna dago.

Dantzariak irailetik ari dira astero entseatzen Pavis Beiras koreografo venezuelarraren gidaritzapean, eta guztira hiru entsegu orokor egingo dituzte emanaldiaren aurretik. Azkuerentzat hunkigarria izan da musika eta abesbatza zuzenean entzutea: "Oilo ipurdia jarri zitzaigun abesbatzakoak entzutean Queenen abestiak kantatzen, duten adinarekin".

Queen dantza eta musika saioa ikusteko sarrerak jada agortuta daude. ■

AGENDA

ERAKUSKETAK

ABENDUAK 12-29

Anton Eguiguren.

ABENDUA

10 ASTEARTEA

Hitzaldia: 0-6 urteko haurren gurasoentzat: BAI esan, Ez esan... Mugak? Afektuak? Heziketa!, Alvaro Beñaran (3.saioa9).
Oxford aretoan, 18:00etan.

11 ASTEAZKENA

Hitzaldia: Herritarren kontsumo jasangarriagoa sustatzeko.
Oxford aretoan, 19:30ean.

13 OSTIRALA

Ipuin kontaketa: *Uretako ipuinak*, Eneritz Artetxe (5-8 urte).
Haur liburutegian, 17:30ean.



ANE AZKUE

14 LARUNBATA

Ikuskizuna: *Queen*, Astindu, San Pedro abesbatza eta Dardara ZMK.
Aitzuri pilotalekuan, 19:00etan.

Antzerkia: *Zer gertatu ote zitzaion Ana Garcíari?*, Pabellon 6 Konpainia Gaztea.
Aita Marin, 22:00etan..

18 ASTEAZKENA

Hitzaldia: *Berdintasuna*, Karmele.
Oxford aretoan.

19 OSTEGUNA

Ipuin kontaketa: *Harrapaketetan haizearekin, kontukontari zurekin*, Kontukantoi (3-6 urte).
Haur liburutegian, 17:30ean.

Entzunaldia: Gabonetako Musika eskolarena.
Komentuan, 18:30ean.

Entzunaldia: Gabon Koruaren entsegu irekia.
Komentuan, 21:00etan.

Zine forum: *One Cut Of The Dead*.
Zuz.: Shinichiro Ueda.
Aita Marin, 22:00etan.

20 OSTIRALA

Antzerkia: *35 Huts*, Esti Curiel.
Aita Marin, 22:00etan.

22 IGANDEA

Gabonetako kontzertua: ZUMB musika banda.
Oxford aretoan, 19:00etan.

24 ASTEARTEA

Areto futbol txapelketa azkarra.
Kiroldegian, 9:00tik 14:00tara.

Niño Jesusen Eskean.
Eguerdia bitartean.

Olentzerorekin kantuan.
Institutu parean hasita 12:30ean.

Gabon koruaren saioa.
Kalez kale 15:30ean.

Gabon kanten lehiaketa.
Eusebio Gurrutxaga plazan, 18:00etan.

Olentzero eta Gomezagoren etorrera.
Goikotorretik hasi eta herrian zehar, 18:00etan.

Jaiotza ikuskizuna.
Eusebio Gurrutxaga plazan, 18:00etan.

26 OSTEGUNA

Xake txapelketa: 16:00 haurrak eta 18:00 helduak.
Oxford aretoan, 16:00etan.

27 ETA 28

Gabonetako parkea.
Kiroldegian.

27 OSTIRALA

Bertsolari gazteen jaialdia.
Oxford aretoan, 22:00etan.

29 IGANDEA

Dantza tailerra: *Kapoeira familiar*, Astinduren eskutik. Jon Montiel, Senzala Euskadi.
Herri eskolako ginasioan, 11:00etan.

30 ASTELEHENA

Ipuin kontaketa: *Detektibeak liburutegian*, Apika (5-8 urte).
Haur liburutegian, 17:30ean.

31 ASTEARTEA

San Silbestre lasterketa.
12:00etan.

Biografia komiki bidez



GEREZI GARAIA

Egilea: Belatz
Argitaratzailea: TXALAPARTA
Argitaratze urtea: 2018
Orrialdeak: 138
Generoa: Komikia



TESTUA: ASIER ARAKISTAIN

Gaurkoan komiki bat proposatzera gatoz. Irakurzaletasun txikia edo ezer ez duenarentzat literaturara hurbiltzeko modu erraz eta atsegina da, irakurgaia halakoa bada, behintzat, edozein liburutan bezala.

Azken urteetan ugaritzen ari dira euskaraz argitaratzen diren komikiak, eta askok komikigintza eta haur literatura nahasteko joera izan arren, literaturaren alor honetako lanek ez diote inbidia handirik bestelako esparruetan aurki genezakeenari.

Oraingoan Mikel Santos *Belatz* ilustratzaileak Txalaparta argitaletxearen enkarguz sorturiko *Gerezi garaia* liburuarekin gatoz.

Bertan, Lucio Urtubia Jimenez Nafarroa Garaiko Cascanten 1931. urtean jaioetako igeltsero eta militante anarkistaren biografia azaltzen

zaigu. Liburu bakarrean kabitut ezin den bizitza baten irudi biografia ederra osatuz.

Liburua zabaldu eta berehala dator gainera kontaktaren hari nagusia: Amaia izeneko gazte iruindarrak karrera bukaerako lana egin behar du Lucio Urtubiari buruz, eta hori dela eta, solasaldi luzeak izango ditu protagonistarekin, zeinetan bere biografiako pasarte ezagunak joango zaizkion lehen eskutik aletzen.

Teoria ederren zale baino gehiago, ekintza gizona dugu Lucio Urtubia. Haren bizitza etenik gabeko borroka bat izan da, eta, batzuek kontrakoa uste duten arren, ondare hori utzi

LIBURU BAKARREAN KABITU EZIN DEN BIZITZA BATEN IRUDI BIOGRAFIA EDERRA OSATZEN DU

digu, Lucioren altxorra. Belatzek luze galdekatu du Lucio hainbestetan kontatutako pasadizoen inguruan, ekintzak, lekuak, pertsonak, gertakizunak, atmosferak iruditzen zehaztasunez islatu ahal izateko. Hala, bada, cascantearraren biografo ofizial bihurturik, ezagutzen genituen abenturak eta ezagutzen ez genituen beste hainbat pasadizo ere kontatuko dizkigu irudigile iruindarrak: Cascanten emandako haurtzaroa, lehen banku desjabetzeak, polizia iskintxo egiteko asmatutako trikimailuak, familia kontuak, Citibank banketxearekin egindako negoziazioa, muga zeharkaldiak...

Guztia edo ia guztia kontatuko digu Luciok akzioz eta ekintzaz betetako orri hauetan. Izan ere, anarkista menderaezin honek dioen bezala: «Ezer egiten ez duen iraultzaile bat apaiz bat besterik ez da». ■

Liburutegitik



ARANTXA EIZAGIRRE

Hemen dator Lurdes irribarretsu, “Zer polita, Arantxa! Pila bat gustatu zait, gomendatzeko modukoa!” Carmen, berriz, kopetilun: “Jada irakurrita nuen!” jaja... bai, askori gertatzen zaio, badirudi beti berdinek ematen digutela atentzioa! “Hauxe eramango det, ondo dagoela esan didate eta”, ea oraingoan zorte handiagoa duen. “Bihar etorriko naiz lasaia!” dio Milak presaka doan bitartean, beti bezala. “Kaixo, Arantxiii”, dio Isabelek atetik bere hitz egiteko doinu jostariaz. Ez du kalterik egiten 53 urte bete eta gero, gazte edo gaztetzen nauen “Arantxi” hori entzuteak, ez horixe! Azkar aukeratu du gustuko bat gaur ere.

İñakiz akordatu naiz, zer moduz ote dabil? Egunean bi aldiz etortzen zen egunkariak irakurtzera eta, nola ez nabaritu haren falta? Azkenengoz topo egin genuenean, osasun arazoezin zebilela esan zidan. Ea laster dugun berriz ere hemen.

Josebak, euria atertu eta bere itsasontziaren konponketa lanekin jarraitu ahal bitartean, *Cómo construir una barca* irakurtzeko aprobetxatu du. Julianek, berriz, 6 bat baino ez lioke ipiniko komunikabideetan hainbeste goraipatutako liburuari.

Eleberri edo nobelak, olerkiak, antzerkia, komikiak, biografiak, filosofia, zientziak, politika, artea, historia, ... Sam Savage-

ren *Firmin* liburutegiko arratoiaren antzera, letraz beteriko pasarteak irensten dabilta denak.

Lehenengo James Joyce irlandarraren nobela jan zuen Firminek. Baina gosea asetzeko nahikoa ez eta liburu gehiago irensten hasi zen. Apal artean ikasi zuen bizitzari aurre egiten. Hunkitu, haserretu, barre egin eta amestu, batez ere amestu, liburuei esker. Umoretsuak eta ironikoak batzuetan, garratz eta kirasdunak besteetan. Bizitza bera bezalakoa. Liburuak terapia bezala erabil daitezkeela sinesten dutenak ere badira. Adibidez, Ella Berthoud eta Susan Elderkin: *Literatura erremedioen eskuliburuaren* egileak. “Geure burua nola sendatu liburuaren bidez” dio azpiztituluak.

Biblioterapia ez da zientzia bat, baina gehienok esan dezakegu liburuak –eleberriek bereziki– gure garunaren eta emozioetan eragina dutela. Eta ez naiz autolaguntzako liburuei buruz ari edo ez horiei buruz bakarrik. Liburuaren ahalmenaz ari naiz. Batzuetan argumentua bera da funtzionatzen duena, besteetan prosaren erritmoa, beste batzuetan pertsonaia nagusiarekiko miresmena. Bada beti hunkitzen eta emozionatzen gaituen bat.

Horien artean bizi gara, nahiz eta ironia handiena izan irakurtzeko denborarik ez izatea! Badakizue, oparitu dezakegun onena liburuak direla diote, baina nire ustez

irakurtzeko denbora da opari hobe.

Virginia Woolfek kontatu bezala, urperatutako altxorrez betetako lekua da liburutegia. Urruneko iraganera eta urrutiko etorkizunera eramango zaituen denbora makina. Gogora datorkit Mariasun Landak orain dela urte batzuk idatzitako “Liburutegiak gonbidatzen zaitu” testu ederra:

“Zatoz,

Jarri edo kendu betaurrekoak.

Jarri edo kendu umorea.

Atsedena hartu hainbeste hotsetatik.

Barnekoetatik eta kanpokoetatik.

Egin ezazu zurrut isiltasunaren edalontzitik.

Begiratu, zeure baitatik irteteko.

Entzun, zeure baitara sartzeko.

Ausartu, irribarre egin, txundituta gelditu,

beldurtu, ondoren lasaitzeko.

Sentitzen duzunari hitzak jarri,

paperezko pistetan irristan ibili,

apaletan barrena surfean aritu,

irudien eta hitzen musuak jasotzeko.

Hitz egingo dizute, hitz egin dezazun.

Dibertitu egingo zaituzte, besteak diberti ditzazun.

Kontsolatu egingo zaituzte, besteak kontsola ditzazun.

Liluratu egingo zaituzte, besteak lilura ditzagun”.

Arrotzaren poz txikiak



JUAN LUIS ROMATET

Asko kostatzen zait, ez zait batere gustatzen, eta oso gutxitan erabiltzen dut. Batzuek oso harro diote kazetariak direla; nik ahalik eta gutxien esaten dut. Ez naizelako kazetaria. Ez dut kazetaritza ikasi, arrotza naiz gremio honetan. Egia esan, ezer gutxi ikasi dut. Bizitzako unibertsitatean lortu ote dut doktoretza? Ez, koinatu bat izatea ere ebitatu nahi izaten dut, oporretan lagunei, lankideei edo familiartekoei 'hemen, sufritzen' dioen argazki edo mezuren bat edo beste bidaltzen badiet ere.

Aurten hogeitaz urte bete ditut gremio honetan lanean. Lanbide honetatik bizi naiz, kazetaritza ateratzen dut nire bizibidea, nire soldata. Gipuzkoako egunkari salduenean 15 urte egin nituen, eta *Baleiken* ia sorreratik nabil, dezentetan utzi dut... baita bueltatu ere. Eta, hala ere, ez dut gogoko kazetaria naizela esatea, ez naizelako, eta ofizio honi errespetu handia diodalako. Gustatzen zait kazetaritza. Txikitatik irakurri izan ditut egunkariak; irratia eta telebista baino gogokoagoa dut prentsa idatzia, paperean edo Internet bidez izan. Erreportaje luzeak diren liburuak ere sarri irakurtzen ditut. Baina ez dut inoiz izan kazetari izateko grina. Nik arkeologoa izan nahi nuen! (Indiana Jonesen eragina). Kazetari askok diote Lou Grant telesaila ikusi ondoren sortu zitzaiela kazetari izateko gogoia. Uste dut telesail hori ikusiko nuela, baina... ez, ez da nire kasua. *All the president's men* pelikula estatubatuarra *Washington Post* egunkariko Woodward eta Bernstein kazetariak Watergateko kaka nahastea argitzeko egindako ikerketa lana kontatzen du. Hor piztu ote zitzaidan nire bizitza kazetaritzara bideratzeko gogoia? Bada, ez; pelikula asko gustatzen zait, sarritan ikusi dut, garai hartako film asko bezala, baina ez, ez da nire kasua.

Egia prosaikoagoa da: langabezian nengoen, DVko Zumaiko korrespontsala zen laguna ezkontzera zihoan, eta eztei -bidaiako egunetan lanean ordezkatzeko norbait behar zuen. Ni nintzen hori. Eta bizpahiru asteko ordezkapena izan behar zuena hamabost urte eta erdikoa bihurtu zen. Ofizioa ikasiko nuen, lanpostua ez nuen eta inoiz arriskuan ikusi; hain txarra ere ez nintzen izango, hemen segitzen dut eta. Baina, hala ere, kostatu egiten zait, asko kostatzen zait, esatea kazet...

Beno, egiekin jarraituta, onar dezagun hau, kazetaria naizela behin baino gehiagotan esan dut: museo batzuetan kazetariak deskontuak izaten dituzte sarreretan, eta hor ni naiz kazetari txartela abiada bizian ateratzen duena, leihatilan dagoenak ezer galdetu aurretik. Hor bai, hor kazetaria naiz. Arrotzek ere poz txikiak behar izaten ditugu eta, horretarako printzipioak pikutara bota behar baditugu ere. ■■■

**EZ DUT INOIZ IZAN
KAZETARI IZATEKO
GRINA. NIK
ARKEOLOGOA IZAN
NAHI NUEN!**

ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Webgunea: talasoterapiazelai.com

Tel. 943 865 100

Talasoaren ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era

Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.



ARDANTZABIDE

ATSEDENA

ESKANTZA MULTZOA
koltxoia+altzari altxagarria

Egurrezko altxagarria
edukiera eta erresistentzia handikoa
135x190zm

DESKANTSUAREN HILABETEA

2019



COBALTO

pikolin


135x190zm



649€

Txomin Agirre, 4 · 20750 Zumaia · 943-86 25 32
ardantzabide@gmail.com · www.ardantzabide.com





EKOSISTEMA HEZITZAILEA

ELKARREKIN ETA ELKARRENGANDIK IKASTEN

